

IGELDOKO ORRI INFORMATIBOA



EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ Igeldon



143 AHOBIZI



25 BELARRIPREST

Kaixo herrikide!!!

Iritsi zaigu abendua eta bera-
rekin batera baita urteari agur
esateko garaia ere. Baina ezin
urtea agurtu aurretik herrian
izan ditugun hainbat kontu
aipatu gabe.

Besteak beste: Euskaraldiaren
inguruan izan ditugun ekintzak,
Gabonetarako antolatutakoak,

Herri Kontseiluko azken
berriak...

Atzera begira atalean,
Gabonetako eskeko historia
ekarri dugu gogora eta Kontu
Kontarin Iker Dorronsoro eta
Jon Maiari egindako elkarrizke-
ta. Gustatuko zaizuelakoan...

On egin!

ZORRA ORDAINDU DU ITSAS AURREK

Aurtengoan arin bukatuko du urtea
Itsas Aurre elkarteak, desanexioaren
borrokak halabeharrez hartutako bide
judzialak sortutako gastuari aurre egitea
lortu baitu. Eta modu xumean izan arren,
herriari eskerrak emanaz topa bat egite-
ko gonbidapena luzatu nahi die herritar
guztiei. Abenduaren 30, eguerdiko
12.30tan plazara hurbiltzeko deia eginaz.

Aurreko alean azaldu bezala, aurtengo
urtearen amaierarekin batera desanexio
prozesuak epaitegietan izandako ibilbide
luzeak sortutako gastua guztiz ordain-
tzea lortu da eta horrekin batera urte
hauetan zehar herritarrek azaldutako
borondate ona eskertu nahi izan du
Itsas Aurrek, gastuaren zati handiena
herritarrek emandako diruari esker
ordaindu delako. Bestalde, azken urtee-
tan izandako asteroko zozketa ere amai-
tutzat emango dute, uztailean antolatu
zuten garagardo azokan lortutako diruari
esker, abokatuari ordaindu beharreko
diru guztia biltzea lortu baitute.

Puntu honetaraino iritsita, prozesu
honek ekonomikoki zenbat suposatu
duen hausnartu dute, azken batean pro-
zesua ez baita kondizio berdinetan eman
bi aldeentzat, udalak eta aldundiak diru
publikoa erabili baitute. Guzti hori, ongi
pentsatutako estrategia izan dela ondo-
riotzatu dute, Igeldo ekonomikoki zor-
petzea izan baita euren asmoa, desgaste
ekonomiko eta animikoa sortuz. Hala
ere, oraindik prozesua ez dela bukatu
eta amaiera arte jarraitzeko asmoa adie-
razi dute. Eta abokatuak adierazitako
azken berrien arabera, datorren urteko
Otsailaren 19an izango dela Itsas Aurrek
jarritako azken helegitearen inguruko
epaia.

MINBIZIAREN IKERKETARAKO "GURE ZUHAITZA" PROIEKTUA

Gabonak ate joka dauzkagu eta
Mendizorrotz Guraso Elkartetik
proiektu berri bat jarri dute mar-
txan, "Gure Zuhaitza" izenekoa.
Zuhaitz honen helburua elkartasu-
naren bidez minbiziaren ikerketa-
rako diru-laguntza bat lortzea da
eta horretarako eskolan jarriko da
Gure Zuhaitza, igeldotar txikiak
apain dezaten prezio sinboliko

baten truk emango zaizkien lokarri
edo lazoekin. Gainontzeko herrita-
rrek parte har dezaten abendua-
ren 20an eskola zaharreko arku-
pera eramango da, eta aipatutako
apaingarriak herriko tabernetan
izango dira eskuragai, abenduaren
31ra bitartean.

Ea guztion artean Gure zuhaitza
emankorra izatea lortzen dugun!

GIPUZKOAKO HANBURGESA ONENA!

Mikel Harategiak irabazi du
Gipuzkoako hanburgesarik one-
naren saria. Cebanc-ek antolatu
zuen lehiaketa, eta hamar hara-
tegik parte hartu zuten.

Pozik agertu da Mikel Arrillaga

sariarekin. Igeldoko haragiarekin
egindakoa da hanburgesa irabaz-
lea, eta maitasun handiarekin
egiten dituztela dio Mikelek, beti
momentuan eta bezeroen aurre-
an.



Argazkiaren egilea: Irutxuloko Hitzza

Gazte izandakoak aurrera!!!

Dakizuen bezala azken hamar bat urte hauetan jubilatuen elkarte geldirik egon da baina berriro elkarte berpiztu nahian bilera batzuek egiten hasi dira herriko zenbait jubilatuek.

Horretarako aurretik martxan izandako junta-kideen informazioa eta esperientzia beharrezko zaienez, elkarrekin biltzen hasi dira. Oraingoz tramite ofizialetan dabiltzala adierazi digute, dokumentuak berriro etab.

Ondorenean, bilera zabalagoren bat egitea aurreikusten dute, guztien artean aurrera begira zer pauso eman aztertzeko.

"BAKARRIZKANTA" UMOREZKO BAKARRIZKETA

Urtero bezala, datorren otsailaren 17an (igandea) Poltsikoko antzerkiaren barruan antzerki emanaldia izango da arratsaldeko 19:30etan Itsas Aurren.

"Bakarrizkanta" umorezko bakarrizketa izango da Barry Manley antzezlearen eskutik.

SASOI BETEAN DA "EUSKARARI PUZKA" KANPAINA

Aurten ere Errigorako kanpaina izan dugu eta Igeldon 32 kutxa, 24 beltz eta 8 zuri eskatu dira, inoiz baino gehiago! Eskaera egiteko epea amaituta, Oiartzunen jasotako kutxak azaroaren 30ean banatu ziren herrian eta ordu pare bateko tartea finkatu zen arren, ordubeteen burutu zen banaketa.

Beraz, Igeldon 1.600 euro jaso dira.

Zorionak, benetan!

Eta hauxe izan da, Errigoratik jasotako mezua:

"2018ko Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka kanpainan 13.000 saski eskaera jaso dira eta, honenbestez, beste 162.500€ bideratuko dira Nafarroa hegoaldean aho-bizi eta belarri-prest berriak sortzen jarraitzeko ahaleginera. Mila esker eta zorionak nola edo hala kanpaina honen parte izan zareten guztioi. Biba gu!"

Iritsi dira Gabonak

Dagoeneko ate-joka ditugu gabonak eta, aurten ere, urtero bezala, zenbait ekintza prestatzen dabiltza Kixmi eta hainbat guraso, elkarlanean. Abenduaren 15ean 16:30ean gabonetako ensaioa eta tailerra izango dira Itsas Aurre kultur etxean. Eskei dagokienez, lehengo urtean bezala,

hasieratik bi taldetan banatuta egingo dira. Arratsaldeko 14:30ean abiatuko dira, bai abenduaren 24ean, bai abenduaren 31n, herriko plazatik.

Aurten ere iazko ibilbide berbera egingo da. Ikusi atzeko orrian. Animatu eta parte hartu!!

"Nire aurtengo balorazioa oso positiboa izan da atletismoan"



Pozik bukatu du urtea Aitor Etxeberria korrikalari igeldotarrak. Nahiz eta ekainean lesio txiki bat izan, dena planifikatu bezala atera omen zaio.

Lesioaren ondoren irailean berriro entrenatzen hasi eta hiru hilabete hauetan bi lasterketa egin ditu; bata Lasarten eta bestea Irunen (Cross-a belar eta lokatzetan; Gipuzkoako txapelketako lehen lasterketa).

Bi lasterketetan emaitza ezin hobea lortu du, bietan irabazle izan baita.

Datorren urteari begira galdetuta, duen helburu nagusia markak hobetzea omen da: 3000 metrotan 8'25''-etik jaitsi eta 10.000 metrotan 30'30''-tik jaistea.

Bestalde, ea denboraldi berri honetan Igeldoko igorera forman iristea gustatuko litzaioke marka on bat ezartzeko, eta baita aspalditik begiz jota duen Behobia - Donostiara ere. Urte guzti hauetan bertan parte hartu ez duen arren, horretarako ere prestatzen ari omen da eta.

2018ko markarik onenak

1500 metrotan: 3'57''
(Gipuzkoako azpitxapeldun)

3000 metrotan: 8'35''
(Gipuzkoako eta Euskadiko txapeldun)

10.000 metrotan: 31'13''
(Euskadiko azpitxapeldun)

Herri kontseiluak Batzarra egingo du Urtarrilean

Batzarra urtarrilaren 13an izango da goizeko 11:00etan Itsas Aurren.

Herri Kontseiluak batzarra egingo du datorren urtarrilaren 13an (igandea). Goizeko 11:00etan izango da Itsas Aurren. Hori horrela, herritar guztiei dei egiten diete bertaratzeko.

Batzorde bakoitzak landutakoaren berri emango du, baita orain eskuartean dituzten zenbait gai eta aurre-ra begirako zenbait asmo ere.

AZKEN EGUNETAN ERASOAK JASAN DITUZTE AHUNTZ ETA ARDIEK



Azken egunetan zenbait erasoren berri izan dugu. Amezti inguruan gertatu ziren lehen biak. Bertan hainbat ahuntz hilda azaldu ziren. Harrinxulo eta Lapabidera ere zabaldu dira azkenak. Jasotako informazioaren arabera, lau eraso izan dira guxtienez eta dozenatik gora hildako abere.

Azienda mota hau duten herritarrak kezkatuta ageri dira eraso hauek direla eta. Haserre daude inguruko

etxeren bateko zakurrak izan daitezkeela uste dutelako: "bakoitzak bere animalien kargu egin behar du, askotan ikusi ditugu zakurrak gure terreno inguruetan euren jabeen zaintzarik gabe".

Eraso hauen maiztasuna eta larritasuna ekiditeko asmoz, Herri Kontseiluak ere deialdi bat egiten die herritar guztiei, bakoitzaren etxeko animaliak zaindu eta itxiturak berme guztiekin itxi ditzaten, herritarron arteko elkarbizitzaren onurarako.

BERRITZE HAUTESKUNDEAK MAIATZEAN

Datorren maiatzaren 26an, Udal Hauteskundeekin batera, Herri Kontseilua berritzeko hauteskundeak izango dira.

Orri informatiboarekin, hauteskunde prozesuko oinarriak doazkizue. Oinarriei proposamen berriak egiteko epea irekiko da eta urtarrilaren 13an Herri Kontseiluak burutuko duen batzarrean, herritarrek egindako proposamenak bozkatuko dira. Batzarretik aurrera prozesua martxan jarriko da.

DAGOENeko BADUGU ARMARRIA



Joan den urriaren 28an ospatutako udazken jaietan gehien-goak hala erabakita, Txus Galindo igeldotarraren armarrria izan zen bozkatuena.

Pozik jaso zuen berria irabazleak. Arte lanaren diseinuaren inguruan galdetuta, familia osoak emandako laguntza nabarmendu zuen.

Orain, bere artelana formatu desberdinetara egokitzen ari da. Horretan dihardu artistak Herri Kontseiluarekin batera.

AMAITZEAR DA BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN SINADURA BILKETA

Herri Kontseiluak martxan jarritako sinadura bilketa urtea bukatzearekin batera amaituko da.

Bertan, Babes Ofizialeko 36 Urtarrilean, sinadurak ten die Txapela Tabernan, Etxebizitzak igeldotarrantzat iza- Donostiako udalean aurkeztuko Mendizorrotz Tabernan eta tea eskatzen da. dira. Herri Kontseiluak oraindik Calongen dutela horretarako sinatu ez duten herritarrei dei egi- aukera.

MARTXAN DA NEGUKO I. PALA TXAPELKETA

Azaroaren 30ean eman zitzaion hasiera I. Neguko Pala Txapelketari. Apirilaren 5era arte, ostiralero 3 partidu ikusteko aukera izango da.

	18'00	19'15	20.30
AZAROAK 30	ZUMETA-ZUMETA/ VERGARA-JOANES	ETXEBESTE-OIARZABAL/ BARINAGA-BARINAGA	
ABENDUAK 14	OSKAR-HUEGUN/ MUÑIZ-GAMETXO	LIZASO-LEKUONA/ VIANA-MATXAIN	BENGOETXEA-IZQUIERDO/ KARHIN-MENDI
ABENDUAK 20	MARTINEZ-GARBISU/ URRUZMENDI-OLASAGASTI	ZUBELDIA-ARANGUREN/ GARI-KARLOS	RUIZ-ZUBIMENDI/ IRIBAR-IRIBAR
ABENDUAK 28	GOIKOETXEA-LIZARAZU/ BENGOETXEA-IZQUIERDO	ETXEBESTE-OIARZABAL/ VERGARA-JOANES	SALABERRIA-NUIN/ OSKAR-HUEGUN
URTARRILAK 4	URRUZMENDI-OLASAGASTI/ VIANA-MATXAIN	MARTINEZ-GARBISU/ LIZASO-LEKUONA	GEREÑU-ZABALA/ IRIBAR-IRIBAR
URTARRILAK 11	SALABERRIA-NUIN/ DORRONSORO-LOIDI	BENGOETXEA-IZQUIERDO/ ARREGI-URREAGA	ZUBELDIA-ARANGUREN/ URIGOITIA-MIKELA
URTARRILAK 18	VERGARA-JOANES/ BARINAGA-BARINAGA	RUIZ-ZUBIMENDI/ LEGARRETA-BELOKI	URRUZMENDI-OLASAGASTI/ LIZASO-LEKUONA
URTARRILAK 25	18' JASONE-IXIAR/GELBENZU-GONZALEZ 18'35 KRIS-EDURNE/GARAZI-MAITANE	GOIKOETXEA-LIZARAZU/ KARHIN-MENDI	IRIBAR-IRIBAR/ LEGARRETA-BELOKI
OTSAILAK 1	KARLOS-GARI/ IRAOLA-FERRERO	ZUMETA-ZUMETA/ BARINAGA-BARINAGA	ARRUTI-BARRONDO/ ANE-HAIZEA JASONE-IXIAR/ KRI-EDURNE
OTSAILAK 8	OSKAR-HUEGUN/ DORRONSORO-LOIDI	SALABERRIA-NUIN/ MUÑIZ-GAMETXO	ETXEBESTE-OIARZABAL/ ZUMETA-ZUMETA
OTSAILAK 15	ZUBELDIA-ARANGUREN/ IRAOLA FERRERO	GOIKOETXEA-LIZARAZU/ ARREGI-URREAGA	20'30 GELBENZU-GONZALEZ/KRIS-EDURNE 21'05 ARRUTI-BARRONDO/KANDELA-IRATI
OTSAILAK 22	18' JASONE-IXIAR/GARAZI-MAITANE 18'35 ANE-HAIZEA/KANDELA-IRATI	RUIZ-ZUBIMENDI/ GEREÑU-ZABALA	KARLOS-GARI/ URIGOITIA-MIKELA
MARTXOAK 1	KARHIN-MENDI/ ARREGI-URREAGA	MARTINEZ-GARBISU/ VIANA-MATXAIN	IRAOLA-FERRERO/ URIGOITIA-MIKELA
MARTXOAK 8	DORRONSORO-LOIDI/ MUÑIZ-GAMETXO	GEREÑU-ZABALA/ LEGARRETA-BELOKI	LAURDENA
MARTXOAK 15	LAURDENA	LAURDENA	LAURDENA
MARTXOAK 22	GELBENZU-GONZALEZ/ GARAZI-MAITANE	SEMI 1.A	SEMI 2.A
MARTXOAK 29	SEMI 1.A	SEMI 2.A	SEMI TENIS SEMI TENIS
APIRILAK 5	FINALA 2.A	FINALA 1.A	FINALA TENIS

Bai Pelota eskola bai eta Herri Kontseilua ere pozik agertu dira txapelketak izan duen harrera onarekin. Nesken artean 7 bikote ariko dira teniseko pilotarekin, 8 bikote 1.mailan eta 16 bikote berriz 2. mailan.

Giro pixka bat sortu nahian, antolatzaileek ostiralero barra ere irekiko dute frontoian pintxo eta edariekin.

1. Mailako 8 bikote, 4ko bi talde-tan, talde bakoitzak 6 partidu. 12 partidu ligilan eta 4 semifinal eta finalatan (12+4).

2. Mailako 16 bikote 4ko talde-tan, talde bakoitzak 6 partidu, 24 partidu guztira ligillan eta beste 8 partidu laurdenetan, semi eta finala. (24+8). Talde bakoitzetik lehenengo biak sailkatuko liriteke.

Neskak tenisakin, 7 bikote, hiruko bat eta laukote bat (9+4).

SUTEEI AURRE EGITEKO NEURRIAK

Urria amaieran Herri Kontseilua Donostiako Udalarekin bildu zen suteei aurre egiteko neurriak buruz hitz egiteko. Bertan, Herri Kontseiluak beste herri batzuk dituzten neurrien berri eman zion Igeldorako proposak izan litezke-ela adieraziz; "Boca de riego" eta hidranteak gertu dituzten baserri

eta etxeek mangera eta giltzak eskura izatea besteak beste.

Herri Kontseiluak Astigarragara ere egin zuen bisita informazio zehatzagoa bildu asmoz. Ondoren, bildutako informazioa Donostiako Udalarari helarazi zion. Donostiako Udalak erantzun du eta suhiltzaileek printzipioz ideia

ontzat eman omen dute nahiz eta presio kontu batzuk konprobatu beharra aipatzen duten.

Aurrekontuen harira berriz, datoren urterako eskatzeko berandu omen da. Hori horrela, ekimena 2020 urtetik aurrera planteatu beharko dela adierazi dute suhiltzaileek.

IRISGARRITASUN PLANERAKO HERRITARREN PROPOSAMENA AURKEZTU DA

Urriaren 23an, bilera irekia antolatatu zuen Herri Kontseiluak. Bertan parte hartutako herritarrek irisgarritasunaren inguruko zenbait proposamen adierazi zituzten. Herri Kontseiluak Donostiako Udaleko Ingurumen Sailari helarazi dizkio. Bertan, Donostia mailan irisgarritasun planaren diseinuan igeldotarren iritzia kontuan hartzeko eskatu dio.

Proposamenean ondorengo puntu hauek bildu ditu besteak beste:

- Espaloien egoera dela eta, gurgildun aulkian dabiltzanek izan ditzaketen oztopoak. Arazo honi helduta, plazaratutako proposamen nagusiak Lizarditik aurreragoko eremua peatonalizatzea edo

“Zona 30” jartzea izan dira. Segurtasun aldetik lortzen diren onurez gain, horrelako eremu bat sortzeak, errepidearen zorua eta espaloiena berdintzea ahalbideratu eta horrekin irisgarritasuna bera ere hobetu dezakeela argudiatuz.

- Beheko parkinetik bai plazara eta bai frontoira iristeko bidea errazteko zenbait proposamen: plazako eskaileretan nahiz Txapelako aldapan baranda jarri, eliza aldeko zatia txukundu eta seinalizatu aldapa ekiditeko, plazako eskaileraren amaieran rampa egin...

- Itsas Aurrera sartu eta atera egiteko, tartean dauden koxkak kentzea.

- Plazako komun publikoak egokitzea gurgildun aulkian dabiltzanak sartu ahal izateko.

Kaxkotik aparte ere beste zenbait kezka eta proposamen bildu ditu:

- Orokorrean, bideen eta trafikorearen egoera hobetu eta bideen garbiketa maizago egitea.

- Kaxkotik kanpinerraino espaloia beharra.

- Zenbait bidegurutze eta irteerei soluzioa ematea; Bentalegre, Amezti eta Gudamendi besteak beste. Hauek hobetzeko rotonda, zebra bide edota sarbidea aldatzea proposatuz.

AURREKONTU PARTEHARTZAILEETAN GURE PROPOSAMENA EZ DA AURRERA ATERA

Donostiako Udalak “Aurrekontu partehartzaileak” ekimena jarri zuen martxan. Herri Kontseiluak egingutako proposamenetatik Itsas Aurreko fatxada konpon tzearenak bakarrik egin zuen aurrera.

Urriaren 8tik 21a arte izan zen botoa emateko aukera. Proposamenak 100 bozka besterik ez ditu

lortu eta beraz, ez du aurrera egingo.

Herri Kontseiluak adierazi duenez, Donostiako Udalak martxan jarri duen boto sistema honekin ez da batere erraza proposamena aurrera ateratzeko behar adina bozka lortzea.

AUZOKONPOSTAN PARTEHARTZEKO GONBIDAPENA

Aspalditxotik da martxan auzokonposta. 16 familia dira egun konposta egiten dabiltzanak. Herri Kontseiluak bertan parte hartzeko gonbidapena luzatu du.

Interesa duen edonor beraiekin harremanetan jartzeko mezua zabaldu du email bidez herrikontseilua@igeldo.eus edo telefono bidez 943313030 / 606311734era deituz.



168 IGELDOTARREK PARTE HARTU DUTE EUSKARALDIAN

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitarte izandako Euskaraldia erronkan 168 parte hartzaile izan dira Igeldon; 143 Ahobizi paperean eta 25 Belarriprest modura.

Antolatzaileak oso pozik agertu dira izandako harrerarekin. Euskaraldia bukatu bada ere, aurrera begira zer egin eta Euskaraldiaren balorazioa egiteko bilera irekia antolatu dute datorren abenduaren 27an (osteguna) arratsaldeko 20:00etan Itsas Aurren.

Euskararekin gozatzeko aukera izan zen antolatutako ekintza desberdinetan

Azaroaren 23an haurrek "Kabernikola" filmaz gozatzeko aukera izan zuten palomita eta guzti. 40 haur inguru elkartu ziren.

Iluntzean helduen txanda izan zen. Aho bizi eta Belarriprestak triki poteoa egin zuten herrian zehar. Tabernek pintxo goxoak

prestatu zizkieten 11 eguneko erronkarako indarrak hartzeko.

Azaroaren 30ean, Sorgina Txirulina ipuin kontalariarekin elkartu ziren haurrak. Eskulan tailerra ere egin zuten euskara lagun hartuta.

Iluntzean berriz, helduen txanda iritsi zen. Errementari filma ikusiz, Arabako jaki goxoz prestatutako afari merienda egiteko aukera izan zuten. 30 bat lagun elkartu

ziren eta ez dakigu gauean deabruarekin amets gaiztorik izan ote zuten.

Igande goizean ajea pasatzeko Zumba saioa izan zen frontoian Maialen Lago Zumba irakasleak gidatuta. Euskal musikarekin gorputza astindu zuten bertaratutako 30 lagun inguruk. Aze martxa!

Euskaraldiari amaiera emateko argazkia atera zuten plazan.



Gabon gabon, Igeldoarrak gabon ta berri on!

Gabon garaian bete betean garenez, oraingoan herrian aspaldiko ohitura dugun gabon eskeko argazki zaharrei begira jarri gara. Ea eza gutzen dituzuen argazkian ageri diren neska-mutilak!!



Atal honetan, herriko argazki zaharrak plazaratu nahi ditugu. Herriko historia eta istorioak kontatuz, zer hitz egina eta pentsatua emanaz. Gure asmoa herriarekin lotura duten mota ezberdinetako argazkiak jartzea da, eta bide batez, zure etxeko bazterrak astintzea ere eskatu nahi dizugu, interesgarriak izan daitezkeen argazki zaharrak dituzun begiratu eta gurekin konpartitzeko. Guztion artean lan polita egin baitezakegu. Animatu!

Argazkiak pasatzeko deitu 627 756 185 (Jabier), 645 735 762 (Larraitx) edo emailaz bidali igeldokoorria@gmail.com helbidera.

IKER DORRONSORORI ELKARRIZKETA

<<Liburua argitaratzea oso interesgarria iruditzen zait, auto-ikasketarako aukera ematen du>>

Oraingo alean trikitixa doinuekin gatoz. Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak atera ohi duen abestien liburuxkan Iker Dorronsorok konposatutako eta Jon Maiaren letra duen Berdea eta Urdina

abestia argitaratu dutela jakin dugu eta aitzakia polita iruditu zaigu Iker Dorronsororekin elkartzeko eta Jon Maiari, motzean, galdera batzuk egiteko ere.

Nondik dator proposamena?

Orain dela 4 urte, 2014an Euskal Herriko Trikitixa elkartetik harremanetan jarri ziren nirekin eta Gure Golkotik diskoan hiru abesti ateratzeko proposamena luzatu zidaten. Hiru abestitik bik letra zeukaten; kalejira Jon Maian letrekin (Berdea eta Urdina), trikitixa Beñat Gaztelumendin letrekin eta arin-arin bat. Orain hilabete batzuk berriz, Trikitixa Elkartetik deitu zidaten berriro, Berdea eta Urdina abestia gustokoa izan dela, jendeari gustatu zaiola eta beraiek ateratzen duten liburuan abestia argitaratzeko proposamena egin zidaten, bertan abestiaren partitura eta letrak azaltzen dira. Liburuaren izena Paperetik Soinura (soinu txikirako partiturak) da.

Letrak egiteko bertsolariengana jo ohi duzu?

Aurreko gure diskoetan ere beti bertsolarietara jo izan dugu. Iruditzen zait abestian doinuearekin batera letra polit bat egitea ere garrantzitsua dela eta horregatik jo izan dugu beti bertsolarietara. Gure diskotan Aitor Mendiluzek asko parte hartu izan du, Beñatek ere tartean behin beste letran bat egin izan digu. Kasu honetan Jon Igeldon bizi zela aprobetxatuz, jarri nitzan berarekin harremanetan. Igeldori buruzko abesti bat egitearena zer iruditzen zitzaion azaldu nion eta pixka bat, bere kabuz ea doinuak

zer adierazten zion berari utzi nion. Hortik sortu zuen Igeldori buruzko Berdea eta Urdina abestia, eta izenburua ere horixe.

Nola izaten da melodia eta letra egilearen arteko elkarlan hori?

Guk melodia ematen diegu, eta beraiei melodia horrek emozio aldetik edo sentimendu aldetik zer helarazten dien baloratzen uzten diegu eta hortik bertsolariak letra egiten du. Ondoren berriz guri letra pasa eta gustatzen zai-
gun edo ez begiratzen dugu eta zerbait aldatu nahi izanez gero aukera izaten da, bien artean moldatzen joaten gara. Baina egia da normalean, bertsolari batek egindako letra hobetzea, gure kasuan zaila izaten dela. Berdea eta Urdinaren kasuan hasieratik asko gustatu zitzaidan.

Eta nola lortzen da jendearen gustuko abestia izatea?

Askotan zaila izaten da doinua eta letra ondo lortzea. Hori da abestiak arrakasta izateko sekretua. Doinu horrek letra egokia izatea eta alderantziz ere, biak ondo enpastatzea. Egia esan, melodia nahiko erraz sartzen dena da eta letra ere halakoa behar izaten da eta Jon Maiak abesti honekin horixe lortu zuen, melodiari egokitutako eta belarrira erraz sartzen den abesti bat egitea. Jendeari gustatu zaio. Gainera abestia ere kalejira bat da, alaia eta letra aldetik ere ez dauka asko baino bueno, oso polita.

Lehendabiziko aldia da zure abesti baten partitura argitaratzen dena?

Bueno, egia esan disko bat ateratzen duzunean, zure abesti guztiak erregistratu egiten dira partitura moduan (egile eskubideak izateko). Orain artean Elkarrekin grabatu izan dugunez beti, berak egiten du produkzio lan hori. Kasu honetan Trikitixa Elkarteak egiten du produkzio lan hori.

Trikitixa Elkartearen liburuxka honetan, abestia hiru modutan argitaratzen da: partitura moduan, Martinen zenbakizko metodoan eta abestiaren letra.

Zer iruditzen zaizu horrelako liburuak ateratzea?

Liburua argitaratzea oso interesgarria iruditzen zait, auto-ikasketarako aukera ematen du, aurrez metodoa ezagutzen duenarentzat. Irakasle moduan ere klaseetarako material erabilgarria da, partiturak erabiliz.

“Askotan zaila izaten da doinua eta letra ondo lotzea. Hori da abestiak arrakasta izateko sekretua”

biltzeko aukera ematen dizu. Eta nik uste, trikitixa elkarteak guzti honekin bilatu nahi duena, urteetan egin diren abestiak biltzea dela (Tapia eta Leturia, Maixa eta Ixiar, Kepa, Zabaleta eta Mutrikun abestiak ere badaude aurreko liburuxketan...) Hau da, alde batetik trikitixa abesti zaharrak bildu eta partiturara ekarri, dokumentazio lan bat eginaz eta berriak ere plazaratzeko.

Nola ikusten duzu egun Trikitixaren egoera?

Lehen, irakasleak trikitilarik ziren eta erabiltzen ziren metodoak, aurrez aurrekoak edo Martinen metodoa izaten ziren. Trikitilariena joan behar zen trikitixa ikasteko. Gaur egun berriz, trikitixa musika eskoletan sartu da eta partiturekin, musika munduan trikitixa ezagutu da. Akademia mundura sartu da, horrelako liburuekin aukera hori eman da. Geroz eta gehiago zabaltzen doa, metodo ezberdinak erabiliz.

Nik uste orain dela 30 urte inguru, trikitixaren zabalpen bat egon zela, diskoak eta hasi zirenean: Tapia eta Leturiarekin, Trikitixa Txapelketak zeuden, Martinen metodoa... Gu, ikasle bezala, Martinen metodoa ezagutu genuen ikasle pila bat ginen; Koldo Iparragirre, Joseba Iparragirre, Axier Gozategi,



Maixa... Trikitixaren boom bat egon zen eta hortik sortzen dira sortzen diren trikitilari guztiak. Ikasle horiek denak beren herrietan hasi ziren klaseak ematen gerora eta horrela asko zabaldu zen eta horrek ekarri zuen ikasle pila bat, trikitilari gazte pila bat. Bakoitzak bere ibilbidea egin du, talde moduan, irakasle moduan edo Iker Goenaga bezala, bakarlarari moduan... Guk Triki Ta Kekin 18-20 urte eman ditugu.

“baina gero etxean dedikazioa eskatzen duen instrumentu bat da”

Eta Igeldon, zenbat ikasle dituzu aurten?

Igeldon orain hamar bat ikasle ditut, nik ere denbora tarte gutxiago daukat baina dauzkatenekin oso gustura nago. Klaseak emateak aukera ematen dit trikitixarekin eta haurrekin egoteko, eta ar hori kentzeko. Astean ikasle bakoitzarekin 45minutuko saioak ematen ditut, baina gero etxean dedikazioa eskatzen duen instrumentu bat da.

Ezta hasiera batean izan zena, leno hasieran ez zegoen gauza askorik, musika eskolak ere ez ziren askorik eta trikitixa ikasteko boom hori egon zen, bai Igeldon eta Igeldotik kanpo ere.



JON MAIARI GALDERAK MOTZEAN

Berdea eta Urdina, hori da zuretzat Igeldo?

Igeldori kantu bat egiteko gogoia piztu zitzaidan eta hori da etorri zitzaidana bai, bi kolore hoiek, zelaiena eta itsasoarena. Igeldo biak dira neretzat, mendi giroa eta itsas giroa eta bi kolore eder horiek ditu bere bereak, udaberritik udazkenerako tarte horretan bere edertasun guztian. Igeldok kantu bat merezi zuela sentitu nuen eta bi kolore hoiek jasotzen zutela bere arima iruditu zitzaidan.

Abestian diozun moduan, maitemindurik zaude Igeldorekin?

Igeldo maite det, bere bideetan asko ibili naiz urte hauetan, bere haitz eta zuloetan ere, eta nere bizi-

tzaren zati izango da betirako. Bitxikeria bezala, esango det umetatik liluratu nauela Altxor Uhartearen liburuak, non haseran ostatu zahar bat agertzen den itsas labar baten gainean, Benbow almirantea izeneko, piraten eta itsalapurren babesleku. Taberna horrek beti liluratu izan nau. Bada, modu harrigarri batean, ez baita erreza, holako leku batean egon naizela sentitu dut askotan, Nikolas erretegiaren ondoan. Bai, beti maiteko det Igeldo, lilura berezi bat sortzen dit.

Aukeratzekotan, zein aukeratuko zenuke? Berdea ala Urdina?

Biek batera horia egiten dute, zelaiak eta itsasoa argitzen dituen eguzkia.

PIXKANAKA BADOA ITXURA HARTZEN KOOPERATIBAKO PROIEKTUA

Azaroaren 11an izan zen Kooperatibaren batzarra. Guztira 50 pertsona inguru bildu ziren (42 bazkide) eta hainbat gai izan zituzten eskuartean. Lehenik eta behin Kooperatibaren izaeraren inguruan aritu ziren hizketan eta Herri Kooperatiba bat osatzeko ideia adierazi zuten. Batzarrera hurbildu ziren bazkideek ontzat eman zuten proposamena eta Kooperatibak bere bidean martxan jarrai dezan oztopatu gabe, gai hau ere lantzen joateko beharra azpimarratu zuten. Horretarako, herriko eragile guztiekin bildu eta Batzorde bat sortzearen beharra adierazi zuten, guztien artean nolako kooperatiba izan behar duen lantzeko. Hala ere, Batzorde horretan landutakoa aurrerago Kooperatibako batzar batean aurkeztuko litzatekeela berriro ere eta bertan adostu.

Bestetik Kooperatibaren izena aukeratzeko egindako deialdiaren ondorioz, jasotako proposamenen artean LAIA izena izan dela gehien gustatutakoa adierazi zuten, bai fonetika aldetik eta baita duen esanahiagatik (baserriko tresna izatea, talde lanean aritzekoa, lurrari buelta emateko, biziberritzeko...). Batzarrean bildutako bazkideek ere ontzat eman zuten aurkeztutako izena eta erregistratzea posible den aztertzeotan geratu ziren. Arazoak izanez gero, LAIAN izenarekin ere probatzeko aukera azaldu zuten. Izena aukeratuta, logoa-ren proposamenak aurkezteko epea zabaldu zuten.

Diru kontuei dagokienean, bazkideei eskerrak eman zizkien erakutsitako jarrera onagatik. Egin

beharreko diru ekarpenak guztiek eta garaian egiteagatik. Bestalde, Eusko Jaurlaritzari egindako dirulaguntza eskaeraren onarpena uztailan jaso zutela adierazi zuten eta proiektuaren %23a laguntzeko aukera izango dela (39.000€).

Laguntza hau 2 urtetan emango dute, aurten zati bat eta datorren urtean beste zati bat. Bestalde, dirua lortzeko aukera ezberdinak ere lan-tzen ari direla aipatu zuten; Crowdfunding kanpaina bat martxan jartzea eta gabonetarako zozketa berezi bat egitea ere, bazkide bakoitzari boleto sorta bat banatuz.

Eraikinaren obrei dagokienean, azken asteetan auzolanean egindako lana oso lagungarria izan dela adierazi zuten, partehartze ona izan baita eta aurrera begira ere auzolanarekin jarraitzea aurreikusten dutela azaldu zuten. Bestalde, epe motzean egingo diren obren inguruan ere hitz egin zuten eta printzipioz honako lan hauek aurreikusten dituzte: eraikinaren aurreko fatxada, leiho guztiak jarri, beheko solairua bukatu, barne antolaketa egin, ate nagusia eta biltegiko atea jarri eta egur-lanak egitea. Lan hauek egitean denda martxan jartzeko

aukera izango dela eta epe motzeko lan hauek egiteko beharrezko diren baimenak lortzeko trami-teak ere egin direla aipatu zuten.

Ondorenean, hurrengo fase batean egiteko beste lan batzuk planteatu zituzten, aurrerago erabakiko direnak. Hala ere, batzarrean bildutako bazkideek, gehiengo osatuz, aurrerago planteatzen ziren beste bi lan orain egitea erabaki zuten, gerora denda martxan jarri ondorenean zailagoa izango zela argudiatuz. Lan horiek, bigarren solairuari dagozkio eta estrukturararen aldaketa eta plantaren isolamendua egitea izango lirateke. Beraz, batzarrean erabakitako obraren luzapen hori kontuan hartuz eta denda martxan jartzeko behar diren beste gastu guztiak batuz, bazkide bakoitzak hilean 196€ kontsumituta proiektua bideragarria izango litzateke.

Azkenik, beheko solairuaren banaketa nolako izango den ere aztertzen ari direla azaldu zuten, hau da, dendaren antolaketa nolakoa izan daitekeen. Plano baten bidez azaldu zuten. Hala ere, oraingoz proposamen bat besterik ez dela azpimarratu zuten.



EUSKARAREN EGUNAREN HARRA ZENBAIT EKINTZA ESKOLAN

Abenduaren 3an eskolan Euskararen Eguna eta Euskaraldiaren amaiera ospatu zituzten.

Ikasleak adinez nahastu eta tailer desberdinetan parte hartzeko aukera izan zuten.

Talo tailerra: Gurasoen esku utzi genuen tailer hau. Ikasleak taloak egin eta ondoren jan egin zituzten. Ez dakigu trukua non dagoen (irina ote...) baina benetan talo ederrak dastatu genituen.

Pegatina tailerra: Tailer honetan ikasle bakoitzak bere pegatina diseinatzeko aukera izan zuen.

Karaoke tailerra: Hasieran ikasleak lotsati samar azaldu arren, gustura ibili ziren beraiek aukeratzeko zituzten abesti desberdinak abestuz eta dantzatzuz.

Photocall tailerra: Hemen ikasleek eskolan ditugun jantzi desberdinak hartu eta mozorrotzeko aukera izan zuten. Lelo ezberdinak idatzi eta argazkiak atera zituzten.

Dantza tailerra: Dantza egiteko ordua. "Ahoa bizi eta belarriak prest" abestiaren koreografia landu zuten.

Goizari bukaera emateko, fron-

toian bildu ginen denok eta dantza tailerrean praktikatu zuten dantza, ikasle eta irakasleok elkarrekin dantzatu genuen.

Primeran pasa genuen!

Arratsaldean zinema saioa izan genuen. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloko ikasleak "Hanburgesa zaparrada" filma ikusi zuten; aldiz, bigarren eta hirugarren zikloko ikasleak "Space Jam" filma ikusteko aukera izan zuten.

Era honetara bukaera eman genion egunari.



ZIENTZIA PLISTI PLOST ALDIZKARIA

Hiruhilabete honetan landu dugun proiektuari bukaera eman nahian, gela guztietan aurrera eramanez lanen aukeraketa bat egin eta aldizkari zientifikoa sortzen ari gara.

Aldizkarirako ikasleek aukeratu duten izena zientzia plisti plost da.

Aldizkari honetan jangelako begiraleak eta zenbait gurasok egindako lana ere azalduko da.

Ikasle berri bat eskolan

Azaroan ikasle berri bat matriculatu da eskolan. Mira Sonmez neskatok 6 urte ditu eta Turkiatik etorri da bere gurasoekin.

Oso gustura dator eskolara eta dagoeneko zenbait hitz ikasi ditu euskaraz.

Ongi etorria Sonmez familiari! Gure artean gustura egon daitezen espero dugu.



LEZKARRIREN KONTZERTUA BELAUNTZAN

Abenduaren 2an Lezkarri kamera abesbatzak, kontzertua eman zuten Belauntzan, urtero ospatzen duten herriko jubilatuen egunean. Laida Otaduy (Donostiarra) zuzendari berriarekin egindako lehenengo kontzertua izan zen. Egun, Orkestra zuzendaritzako ikasketak egiten ari da Musikenen, eta aurretik, pedagogia musikala eta pianoa eginak ditu. Zuzendari berriarekin oso gustora daudela adierazi dute Lezkarriko kideek, dituzten ahultasunak gainditzeko eurengan jarritako konfiantzagatik.

Bestalde, Lezkarri garairik onenean ez dagoela azpimarratu nahi izan dute, aurreko urte-tik, lau kide irten baitira eta bi berri sartu. Egoera honek, berrantolaketa egitea eskatzen die taldean, lehen lortutako orekara iristeko. Hala ere, kantatzeko gogorik ez zaie falta eta hobekuntza lortuko duten itxaropenik ere ez. Belauntzan emandako kontzertua horren adierazgarri izan zen, kontzertua prestatzeko epe motza izan arren, ilusioz beteta kantatu baitzu-

ten eta ondorenean izan zuten bazkaria ere lagun-garri izan zuten euren arteko harremanak indartzeko.

Azkenik deialdia luzatu dute, abestea eta musika gustatzen zaion herritar orori, Lezkarri hurbiltzeko gonbidapena eginaz, asteazkenetan Itsas Aurre Kultur Etxean egiten dituzten entsaioetara hurbiltzeko animatuz.



GAU BELTZA OSPATU ZUTEN HERRIKO TXIKIEK

Arimen gauean, urriaren 31n, umeengandik sortutako ekimena martxan jarri zuten guraso talde batek Gau Beltza izenpean. Horretarako Itsas Aurren zenbait tailer antolatu ziren eta herrian barrena goxoki

eske ere ibili ziren umeak. Gaua borobiltzeko afaria ere eskaini zuten.

Giro politean pasa zuten Gau Beltza igeldotar txikiek!!!!!!



GIRO EDERRA UDAZKEN FESTAN NAHIZ ETA EGURALDIAK ASKORIK EZ LAGUNDU



Pentsioen inguruko hitzaldiarekin ekin zitzaion ostiralean festari eta 20 bat lagun gerturatu ziren eskolara, Duintasuna elkarteko hiru kideren azalpenak entzutera. Herri Kontseiluaren laguntzarekin, 65 urtetik gorako herritar batzuk elkartzeko hasi dira hilabeteko azken ostiraletan eta hitzaldi hau beraien ekimenez antolatu zen. Luntxa ere izan zuten Itsas Aurren.

Umeak gustura, larunbatean

Ume eta gaztetxoentzako ekin-tzak antolatu ziren larunbatean. Hasiera batean, bizikleta buelta egitekoak ziren goiz partean, baina eguraldi txarra iragarria

zegoenez, skate eta patinete ikastaroa egin zuten frontoian. Primeran pasa zuten. Eta arratsaldean ere gogotik gozatu zuten zirko tailerrarekin. Oso arrakastatsua izan zen.

Iluntzea, kantu eta musikarekin girotu zen. Afalurretik Kantu-jira izan zen Kaxkoan zehar, Lezkarri abesbatzako kideen eskutik. 20 bat lagun ibili ziren inguruko belarriak goxatzen. Afalostea, berriz, Mexikortxo Band taldeak girotu zuen bere rantxerekin.

Salmenta ona, azokan

Ohi bezala, igandean azoka izan zen bertako produktuekin.

Orokorrean, jendea ibili zen eta antolatzaileak gustura agertu ziren izandako erantzunarekin. Ia dena saldu zutenak ere baziren. Gainera aurtengoan, Laja II eta Lutxurdio trikitilariak girotu zuten azoka.


Kooperatibak ere postua jarri zuen Laboretik ekarritako produktuekin eta oso salmenta ona izan omen zuten.

150 bat lagun, bazkaltzen

Jubilatuena omenez antolatzen den bazkarian ere herritar ugari bildu zen. 150 bat lagun, denera; eta horietatik 84 jubilatuak. Herriko aiton-amonak ere omen du ziren: Teresa Saziain, Daniela Etxeberria, Joakin Garmendia eta Fermin Zinkunegi. Zinkunegi bakarrik izan zen bazkarian, baina gainontzekoek ere jasoko dute bastoi eder bana oroigarri gisara.

Festari amaiera emateko, talo goxo-goxoak jateko aukera izan zuten plazara gerturatu zirenek.





ABENDUAK 24

Plazetxea denok batera

1 TALDEA: TXIKIAK ETA TRAKTOREA

Orkoloaga pasealekua 11-81. (Erreroenea, Xerriene, Ipar izarra, Rantxo enea, Etxe nagusi(2) + taberna, Mirari-enea, Iturritxo, Txalin, Josenea(2) kanpina, Ugarte-enea, Lurgorrita).

Txalin bidea 3-26. (Biorreta, Belabieta, Belabieta azpi.)

Buztinzuri bidea 21-10. (Miruatza, Lauspeltz eta Gorriene.)

Ondoren, traktorean elkartuko gara.

2 TALDEA: HANDIAK ETA FURGONETA (TXARRA EGITEN BADU)

Balenziaga: 97.

Arritxulo bidea: 6-36. (Sindikala auzategia, Ganbo, Matxakone, Loinazenea, Txabola, Iruin eta Iriarte.)

Marabieta bidea: 66-90. (Arretxe (2), Bengoetxe eta Ondasarte.)

Arritxulo bidea: 58. (Juandegi.)

Lapabide bidea 3-22. (Arriola, Polunpari, Zankardegi (2), Habana eta Bekoetxeberri)

Arritxulo bidea 80. (Gorostegi.)

Agiti bidea 2-3. (Txalin Berri eta Arrano-Etxea.)

DENOK ELKARTU ETA ELKARREKIN

Aita Orkolaga pasealekua 127-119. (Xatene, Bizkaiene, Otoendua (1) eta Mendizorrotz etxea.)

Aita orkolaga pasealekua 10-16. (Gurutzeta, Elizondo, Otondua (1), Mendizorrotz taberna, Kalonge, Din-din, Txapela eta plaza.)

Ondoren, Olentzeroren etorrera

ABENDUAK 31

1 TALDEA: TXIKIAK ETA FURGONETA

Marabieta bidea: 88-90-54-24-34-40. (Itsasbide, Ganbaretxe, Arkaitzaga, Amone, Marabieta, Erosene eta Ekaitz.)

Tximistarri bidea: 34-60-56-52. (Itxaso eta Zinkunegi)

Amezti kalea: 17-32. (Zarco, Bongoiti, Goizaldi, Nere Aberria.)

Tximistarri bidea: 2-9. (Oskarri)

Amezti kalea: 30.

2 TALDEA: HANDIAK ETA TRAKTOREA

Gudamendiko bidea: 3-19. 67-55. 17. 49. (Gure ametsa, Mendigain, Eguzkieder, Mendigain txiki, Amezti garaikoa, Xegama, Gure izarra(3) eta Txoxa)

Lasarmendi bidea: 39. (Txokolatene.)

Kristobal balenziaga pasealekua: 1-15. (Leku Eder eta Gure izardia.)

Tximistarri bidea: 9-20-14. (Zingita eta Pension Tximistarri.)

Balenziaga pasealekua: 42- 36. (Buena Vista.)

Amezti kalea 20-26. (Aiztoki eta Amezti zahar)

Lehenengo iristen denak EDO elkarrekin:

Kristobal balenziaga pasealekua: 2-18. (Olatu-gain.)

Kristobal balenziaga pasealekua: 65-54-75-68-72-80. (Amezti zahar, Txubillo, Bentaberri, Gure kaiola, Kamio eta Borda Berri.)

*Lehenengo iristen denak plazako etxe berriak eta Sakristabene.

Amaitzeko, plaza elkarrekin.

AGENDA!!

ABENDUAK 24

14:30, Eskea Ondoren, Olentzeroren etorrera Plazan.

ABENDUAK 30

12:30, Herritarrekin TOPA, Itsas Aurrek antolatuta

Ondoren, Lezkarri abesbatzak gaboneta-ko abestiak abestuko ditu.

ABENDUAK 31

14:30, Eskea.

URTARRILAK 11

20:30, Eskeko afaria.

URTARRILAK 13

11:00, Herri Kontseiluko Batzarra kultur etxean.

URTARRILAK 25

22:00, Igeldoko musaren hasiera Itsas Aurren. Partidak ostiralero.

OTSAILAK 17

19:30, Poltsiko antzerkia Itsas Aurren. "Bakarrikanta" Umorezko bakarrikanta.



**IGELDOKO
HERRI
KONTSEILUA**

Itsas Aurre Kultur Etxea
Igeldoko plaza 4, 20008 Igeldo
Tfona. 943 313 030
Emaila: igeldokoorria@gmail.com



Laguntzailea Donostiako Udala